



Arartekoaren 2019R-2188-18 Ebazpena, 2019ko uztailaren 29koa. Horren bidez, titulu akademiko jakin bat lortzeko egindako ikasketa planaren edukiari erreparatzeko gomendioa egin zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailari, lanpostuak betetzeko prozesu jakin batzuetako merezimendu gisa.

Aurrekariak

1. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2018ko apirilaren 23ko Aginduak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2018ko maiatzaren 2an argitaratu zen, C1 eta C2 azpitaldeetako eta E taldeko lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorraren deialdia eta oinarriak onartu zituen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeak.

Prozesu horretako bi hautagaiek, gutxienez, "Teknikari espezialista, Administrazio eta merkataritza adarrean, kudeaketa informatikaren espezialitatea" tituluak aurkeztu zuten merezimendu gisa, 1986. eta 1992. urteetan lortu zituztenak, hurrenez hurren, horri lotutako ikasketak bukatu ondoren.

Lehiaketako Balorazio Batzordeak argitaratutako "lanpostu/pertsona bakoitzeko balorazio eta puntuak" zerrendaren arabera, baliozkotasun "handia" kalifikazioa jaso zuen titulu hau "ez balioztagarri" gisa jo zen lanpostuarekiko lotura mailari dagokionez; hala, azkenean ez zuen puntuaziorik lortu.

Bi pertsona horiek erreklamazioak aurkeztu zituzten Balorazio Batzordearen aurrean, baina baztertu egin ziren, oinarritzat hartuz zenbait errege dekretuk baliokidetasunak ezarri zituztela titulu horren eta Lanbide Heziketako beste batzuen artean. Hain zuzen ere, horri dagokionez helarazitako komunikazioek adierazi zutenenez, *"el título de Formación Profesional de Segundo Grado, Rama Administrativa y Comercial, Especialidad Informática de gestión, se declaró equivalente al Técnico Superior en Desarrollo de Aplicaciones Informáticas (familia INFORMÁTICA) primero y, en la actualidad, al Técnico Superior de Desarrollo de Aplicaciones Multiplataforma (Familia Informática y Comunicaciones), a efectos tanto académicos como profesionales. En base a ello, no se aprecia el grado de relación reclamado."*

2. Bestalde, bi pertsona haietako batek adierazi zuen titulu hori ere ez dela baloratu zerbitzu-betekizunaren bidez lanpostuak aldi baterako betetzeko prozesu batean, berak parte hartu zuen prozesu batean, kontuan hartuz orain arte eta antzeko lanpostuei lotuta, dagokion puntuazioa eman ziotela.

Bere idatzian azaldu zuenez, tituluak ez baloratu izanaren arrazoia lekualdatze-lehiaketan erabilitako irizpide bera da, eta Funtzio Publikoko zuzendaritzaren barneko jarraibide baten bidez bideratu zen; jarraibide horrek eragotzi egingo



luke aipatutako balorazioa, ulertu baitzen *“que dicho título es de la familia de informática y comunicaciones, y no de la administrativa, habiéndose homologado en su día a la titulación de técnico/a superior de aplicaciones informáticas”*, prozesuan parte hartu zuen pertsona bati igorritako jakinarazpen ofizial batean jasotzen den moduan.

3. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailarengana jo zuen arartekoak, idatzi baten bitartez; idatzi horretan azaldu zenez, lekualdaketan lehiaketan deialdiaren oinarrietan ezarritakoa abiapuntutzat hartuta, aurkeztutako tituluaren ikasketa planaren eduki materialari erreparatu behar zitzaion lanpostuarekin izan zezakeen lotura aztertzeko, hortaz, merezimendu gisa hartzeko, baliokidetzat jotako tituluaren ikasketa planak desberdintasun ugari zituela ikusita, eta, horrek, analisia desbirtuatzeko zuela kontuan hartuz.
4. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailak txosten bat bidaliz erantzun zuen, eta honako hau azaltzen zen bertan, laburbilduz:
 - Deialdiko oinarriak prozeduraren legea dira, eta parte-hartzaileak merezimenduak baloratzeaz arduratzen diren administrazioari, auzitegiei eta batzordeei lotzen zaizkie.
 - Balorazio batzordea arduratzen da honetaz: baldintzak egiaztatzea, merezimenduak baloratzea, lanpostuen esleipena proposatzea eta oinarriak betetzen direla bermatzea. Erabat independentea da, diskrezionalitate teknikoarekin eta objektibotasunez jarduten du, bere ebazpenek arrazoitutakoak izan behar dute eta bere proposamenak Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuari lotzen zaizkio.
 - Balorazio batzordeko erabakien aurka jo daiteke oinarrietan nahiz araudian finkatutako mekanismoen arabera; horrez gain, berraztertzeko errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke lehiaketako prozedurari amaiera ematen dion administrazio-egintzaren aurka.
 - Batzordeko erabakiak irizpide tekniko batean oinarritzen dira, eta organo kalifikatzaileen diskrezionalitate teknikoaren barnean daude; horrek askatasuna ematen dio balorazio teknikoa egiteko orduan eta bere jardunaren legezkotasunaren iuris tantum presuntzioa. Dena den, erabaki horiek organo judizialek kontrola ditzakete.
 - Balorazio Batzordearen jarduna ezin da berrikusi araudian eta deialdiko oinarrietan jasotako bideetatik kanpo.
5. Ondoren, arartekoak beste komunikazio bat igorri zuen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailera; bertan gogorarazi zitzaizkion erakunde honek dituen ahalmenak euskal administrazio publikoen jarduketak aztertu eta



kontrolatzeari dagokionez, eta aurreko idatzian plazaratutako muineko argudioak errepikatu zituen, erantzun argudiatua lortze aldera.

Bestalde, lanpostuak aldi baterako zerbitzu eginkizunen bitartez betetzeko prozesuetan tituluak aintzat hartzeari dagokionez, arlo hori arautzen duen araudiari egin zion erreferentzia arartekoak, eta azaldu zuen kasu horretan ere zentzuzkoa zirudiela aurkeztutako tituluaren ikasketa planaren eduki materialari erreparatzea, eta ez ondoren beste titulu batzuekin izandako baliokidetasunari. Bidenabar, agerian geratu zen kexak hizpide zuen jarduketa irizpide aldaketa baten ondorio zela, eta irizpide aldaketa horrek azalpen argudiatu eta zabalagoa behar zuen, kontuan hartuz ez direla aldatu ez araudia, ez lanpostuen monografiak.

6. Azkenik, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailaren erantzuna Funtzio Publikoko zuzendariaren zenbait txostenetan jaso zen, eta hartutako erabakia argudio hauen bitartez justifikatu zen:

- Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6 artikulua ezarri zuen gobernuak ezarriko zuela lanbide heziketako titulazioak eta horietako bakoitzaren curriculumeko oinarriko alderdiak; besteak beste, beste ikasketa batzuetara sarbidea izatea, baliozkotzeak, salbuespenak eta baliokidetasunak, eta jardun profesionalerako beharrezko betekizunei buruzko informazioa, hala badagokio.
- Apirilaren 16ko 450/2010 Errege Dekretuko hirugarren xedapenak, plataforma anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikariaren tituluak ezarri eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituenak, ezarri zuen kudeaketa informatikako teknikari espezialistaren tituluak (administrazio eta merkataritza arloa) eta plataforma anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikariaren tituluak ondorio profesional eta akademiko berberak dituztela.
- Bigarren graduako lanbide heziketako titulua, administrazio eta merkataritza adarrean, kudeaketa informatika espezialitatea, baliagarria da sarbidea izateko laguntzaile teknikoaren kidegora, Aplikazio informatikoak garatzeko aukeran; horretarako aplikazio informatikoak garatzeko goi teknikari titulazioa edo baliokideak eskatzen dira.
- Lanbide heziketako ikasketa planen ondorio profesionalak eta baliokidetasunak Estatuko Administrazio Nagusiak ezartzen ditu, eta ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak; ez dakigu zein irizpide aplikatu den ikasketa plan horren desberdinak dituzten ikasketak baliokide egiteko, hain zuzen ere, esaterako kudeaketa informatikako teknikari espezialista (administrazio eta merkataritza arloa) eta plataforma anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikaria izateko ikasketak.



- Arauaren aurkakoa izango litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, ikasketa planen antzekotasuna aztertuz, baliokidetasun horiek ez onartzea eta, horrenbestez, kudeaketa informatikako teknikari espezialista (administrazio eta merkataritza arloa) titulazioa daukaten langileak baztertzea laguntzaile teknikoen kidegora sarbidea izate aldera, aplikazio informatikoak garatzeko aukeran, ulertuz ikasketa planak ez dituela gaitzen lanpostu horren funtzioak garatzeko.
- Tituluen baliokidetasunak ondorio guztietarako egiten dira; ez da posible zehaztea zer den baliokidea sarbidea izateko, baina ez lanpostuak betetzeko.
- Tituluen arteko baliokidetasuna, hala badagokio, araudi batean araututako datu bat izan behar da; horrenbestez, ezin du administrazio organo batek ezarri, ezta partikular batek ere, ikasketa planeko edukiaren analisia norberak egitean oinarrituz.
- Aurkeztutako titulazioaren balorazio zehatza Balorazio Batzordeak onartzen du, diskrezionalitate teknikorako duen ahalmena baliatuz eta deitutako lanpostuen eduki funtzionala ezagutzen duen organo kualifikatu modura; ezagutzen ditu, halaber, merezimenduak egiaztatu eta hautatzeko teknikak, baita aipatutako araudia ere.
- Balorazio Batzordearen jarduna ezin da berrikusi; izan ere, batzorde aditu batek hartutako erabakia ordeztu nahi delako horren ordeztu pertsona interesatu baten irizpidea baliatuz, organo kalifikatzailean aurreikusten den zentzuzko jardunean ezjakintasun edo arau haustea egiaztatu gabe, boterea desbideratzeagatik, arbitrariotasunagatik, zein hartutako irizpidea ez justifikatzeagatik.
- Lanpostuak betetzeko deitutako prozeduretan eraketa printzipioak bermatzea zaintzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, baita garatu beharreko lan edo funtzioen eta merezimenduen edukien arteko egokitzapena ere. Gaur egun, balorazio homogenea lortze aldera, administrazio kidegora zabalik dauden lanpostuak garatzeko erabilgarritzat jo diren titulazio akademiko ofizialen balorazioak proposatzen ari da Funtzio Publikoko Zuzendaritza zerbitzuen zuzendaritzei.
- Erabaki hau administrazioaren gaitasun diskrezional eta haien burua antolatzeko ahalmenaren barruan kokatzen da, eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz, balorazio jakin bat ezartzeko aukera ematen du, azaldutako judizio teknikoetan oinarrituz. Horrenbestez, lanpostuak beteko dituzten pertsonen profila bilatzeko askatasuna dauka, lehenago aipatutako printzipioen mugen barruan.

Gogoetak

1. Kexa honek hizpide dituen norgehiagoka prozesuen azterketak abiapuntu gisa hartu behar du balorazio epaimahai edo batzordeei hautemate alde zabala aitortzen zaiela dagozkien funtzioak garatzeko; izan ere, praktikan ez da posible deialdien oinarrietan modu zehatzean aurreikustea gerora sortu ohi diren egoera guztiak.

Horregatik, organo horiek diskrezionalitate tekniko deitu ohi den ahalmena daukate; horren bitartez, dagozkien funtzioak gauzatuz hartzen diren erabakiak gai bati buruzko judizio tekniko baten adierazpen inpartziala osatzen dute.

Bada, ahalmen horren irismenak ezin du, inolaz ere ez, horren babespean hartutako jarduketan kontrolik gabeko egoera batera eraman, ezta kontrol hori organo judizialei eskusibotasunez uztea ere, hasieran Administrazioetik iritsitako erantzunetik ondoriozta zitekeen moduan.

Alde batetik, justizia auzitegiek zein administrazio doktrina juridikoak prozesu hauen ardura daukaten organoen diskrezionalitate teknikoaren figura aztertu dute, eta egiaztatu da irismena mugatu eta kontrol gaitasunak finkatzeko joera etengabea dagoela.

Hala, ildo horretan, honako adibide hauek aipa daitezke:

- 219/2004 Epaia, 2004ko azaroaren 29koa, Auzitegi Konstituzionalaren bigarren aretoarena:

“Este Tribunal ha afirmado, por una parte que «ni el art. 24.1 ni el 23.2 CE incorporan en su contenido un pretendido derecho de exclusión del control judicial de la llamada discrecionalidad técnica» (SSTC 86/2004, de 10 de mayo, FJ 3; 138/2000, de 29 de mayo, FJ 4), pero además, ha recordado (STC 86/2004, de 10 de mayo, FJ 3) que «la determinación de si un concreto curso cumple o no los requisitos exigidos en las bases de la convocatoria... no se incluye en el ámbito de la discrecionalidad técnica, de suerte que el Tribunal con su decisión de excluir determinados cursos por incumplimiento de los requisitos necesarios se limitó a fiscalizar desde el plano de la legalidad la actuación del órgano calificador». Del mismo modo, debemos afirmar que la determinación de si la fórmula empleada para la corrección de determinados ejercicios de un proceso selectivo ha sido aplicada correctamente o no, tampoco entra dentro del ámbito de la discrecionalidad técnica, y por tanto dicha circunstancia, que en absoluto implica sustituir la actividad de la Administración, debe ser controlada por los Jueces y Tribunales cuando así sea demandado por los participantes en el proceso selectivo.”

- 246/2018 Epaia, 2018ko maiatzaren 23koa, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren Auzibideen Aretoarena:

“La demandante alega, en primer término, que la cuestión relativa a la valoración de concretos méritos en la fase de concurso de un proceso selectivo, entraña la interpretación jurídica de las bases de la convocatoria, por lo que los órganos

jurisdiccionales tienen plena competencia para entrar en el fondo de la misma sin cortapisa alguna, dado que se trata de una cuestión reglada y no discrecional.

Lleva razón la recurrente, puesto que en la cuestión planteada en este litigio no se trata de controlar el núcleo técnico de la decisión del tribunal de selección, sino de comprobar si la resolución que el mismo ha adoptado se ajusta a las bases de la convocatoria y si los criterios seguidos por el mismo son conformes a Derecho, y por consiguiente, la fiscalización es exclusivamente sobre determinados extremos reglados, cuales son los contenidos en un baremo de méritos que no entrañan en realidad aspecto técnico alguno.

Por tanto, es aplicable la doctrina del Tribunal Constitucional, así como la jurisprudencia del Tribunal Supremo, que admite el control sobre aquellos extremos reglados, por no incluirlos en el ámbito de la discrecionalidad técnica (sentencia TC 219/2004, de 29 de noviembre, y del TS de 11 de diciembre de 1998, 1 de julio de 1999, 10 de octubre de 2000, 28 de enero de 2003, 25 de junio y 22 de octubre de 2012).

Específicamente ha recordado la sentencia TC 86/2004, de 10 de mayo, en su fundamento jurídico 3, que «la determinación de si un concreto curso cumple o no los requisitos exigidos en las bases de la convocatoria... no se incluye en el ámbito de la discrecionalidad técnica, de suerte que el Tribunal con su decisión de excluir determinados cursos por incumplimiento de los requisitos necesarios se limitó a fiscalizar desde el plano de la legalidad la actuación del órgano calificador», y del mismo modo es cuestión jurídica, no técnica, la decisión sobre la valoración o no en el apartado de experiencia profesional de determinados servicios.

En el mismo sentido, la sentencia de la Sala 3ª del Tribunal Supremo de 25 de junio de 2012, con cita de la de 8 de marzo de 2010, ha declarado que " son ajenas al ámbito de la discrecionalidad técnica las comprobaciones matemáticas o aritméticas de la puntuación conferida en un proceso selectivo así como la determinación de si un concreto curso cumple o no los requisitos exigidos en la convocatoria".

En igual sentido, la sentencia de la propia Sala 3ª del Tribunal Supremo de 16 de mayo de 2011 insiste en que el órgano judicial "ni ha sustituido el juicio técnico del tribunal calificador, ni ha vulnerado la jurisprudencia aplicable a la discrecionalidad técnica de los órganos evaluadores, sino que ha actuado correctamente puesto que, tras valorar y apreciar la prueba documental practicada, consideró acreditada la existencia de un error en la valoración de méritos del demandante por parte del tribunal del proceso selectivo y, en consecuencia, procedió a la revisión jurisdiccional de la valoración que le fue conferida".

- 104/2019 Epaia, 2019ko urtarrilaren 31koa, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoarena:

"Y el debido análisis de lo suscitado aconseja recordar, con carácter previo, la jurisprudencia sobre el significado y ámbito que ha de reconocerse a la llamada doctrina de la discrecionalidad técnica, y sobre las posibilidades que ofrece el control jurisdiccional frente a los actos de calificación especializada en los que se proyecta dicha doctrina, en especial en lo referente al nivel de motivación que les es exigible.

Esa jurisprudencia, procedente de este Tribunal Supremo (TS) y del Tribunal Constitucional (TC), está caracterizada por el permanente esfuerzo de ampliar al máximo y perfeccionar el control jurisdiccional previsto constitucionalmente frente a toda actuación administrativa (artículo 106.1 CE) (...)."

Doktrina juridikoak ere hainbat aipamen egin ditu honi dagokionez. Hala, Tomas Ramón Fernándezek¹, diskrezionalitate teknikoa deitutakoa dela bide hartutako erabakien inguruan, honako hau esan zuen:

“(...) esas valoraciones valen lo que valen las razones con las que sus autores las respaldan, unas razones que los jueces, que no son expertos en todas las ciencias, sino solo en Derecho, no pueden discutir, pero que sí pueden y deben someter al filtro de la «sana crítica» y rechazar, incluso, cuando no superen ese filtro, esto es, cuando omitan algún hecho relevante, contradigan los hechos que resulten probados o alteren éstos, incurran en apreciaciones jurídicas erróneas o, en fin, resulten ilógicas, arbitrarias o irrazonables o conduzcan a resultados inverosímiles, como acostumbra a destacar la jurisprudencia sobre la prueba pericial en todos los órdenes jurisdiccionales.”

Bestalde, organo horien jarduna administrazio prozedura arautu baten barnean dagoenez, eta bertan ere dagokion administrazio errekurtsua aurkeztu daitekeenez, haren zuzenketa eta ordenamenduari egokitzeko azterketa bide hori baliatuz ere egin daiteke, epaitegietara jo beharrik gabe, edo hura egikaritu aurretiko urrats gisa.

Kontrolatzeko ahalmen hori onartuta, Arartekoak uste du otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— kexan jasotako kasua aztertzeko eskumena ematen diola eta, horrekin batera, dagozkion balorazioak egiteko, bere ondorioak oinarritu ahal izateko beharrezkoa den informazioa eskatzeko eta, hala badagokio, beharrezkoak diren gomendioak egiteko.

Horren haritik, gogoan izan behar da organo horiek dituzten ahalmenak deialdiaren oinarriak ahalik eta ondoen betetzeko baliatzen direla, arau-esparru orokorraren barruan, bai eta kasuan-kasuko xede publikoa lortzen dela bermatzeko ere.

Halaber, kontuan izan behar da lehiaketa-prozesuetan oso garrantzitsua dela herri-administrazioen jardunean gardentasun-printzipioa aplikatzea, baita enplegu publikoa eskuratzeko orduan gailentzen diren berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio orokorrak ezartzea ere.

Azkenik, ezinbestekoa da balorazio-batzorde edo -epaimahai horien jarduketek deialdia gidatzen duten oinarriak eta aplikatzeko den gainerako araudia errespetatzea, eta, horrez gain, jarduketak behar bezala arrazoituta egotea, justifikazio egoki eta zentzuzko horri esker jakingo delako zergatik hartu dituen organo horrek erabakiok, eta, zalantza egitekotan jarduketa erreferentziatzeko arau-esparruarekin bat ote datorren, zalantzak argituko direlako.

Kexa honetan aztertutako kasuan, kontua ez da Balorazio Batzordeak erabilitako irizpidea aldatzea eta horren ordean beste bat baliatzea, interesdunaren onerako izango den interpretazio baten ondoriozkoa; izan ere,

¹ Fernández, T.R. (2015). La discrecionalidad técnica: un viejo fantasma que se desvanece. *Revista de Administración Pública*, 196, 211-227.

jarduketa horrek ez luke lehenago aipatutako kontrol eta berrikuspen ahalmenen babesik izango.

Aitzitik, eta hurrengo ataletan azalduko den moduan, kontua da nabarmentzea irizpide horiek hautatu zirela lekualdatzeen lehiaketaren deialdiko oinarrietako ezarritakoarekin ados ez datorren modu batean eta, dirudenez, etorkizunean lanpostuak betetzeko prozesuetarako instrumentatu egin dira edo egingo dira, aplikazio orokorreko arau bihurtu nahi dituzten barne administrazio jarraibideen arabera.

2. Urriaren 13ko 190/2004 Dekretu bidez onartutakoa euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiko 11. artikuluan lehiaketetan kontuan hartzen diren merezimenduak arautzen dira, eta, zehazki, 3. b) atalean honako hau ezarri zen:

“Deitutako lanpostuan jardun ahal izateko duten erabilgarritasunaren arabera titulu ofizialak balioetsiko dira.”

E taldeko eta C1 eta C2 azpitaldeetako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorreko deialdiko 5. oinarriko lehen atala merezimenduak hautagai den lanpostuarekiko duen loturari buruzkoa da, eta, ezarri zuenez,

“baloratu beharreko merezimenduaren edukiaren eta lortu nahi den lanpostuak dituen zereginen artean loturaren bat dagoenean baloratuko dira merezimenduak. Lotura egongo da baldin eta egiaztatu den merezimenduaren eta lortu nahi den lanpostuaren jakintza-arlo eta –esparruen artean harremana badago. Ez dira baloratuko lortu nahi den lanpostuarekin loturarik ez duten merezimenduak.”

Azkenik, lehiaketako Batzordeak aztertu beharreko balorazio judizioa behar duten merezimenduen balorazio irizpideen dokumentuak honako hau ezarri zuen;

“La determinación del grado de relación ALTO, MEDIO, BAJO o NO VALORABLE de todos los méritos se ha llevado a cabo mediante un juicio de adecuación en el que han intervenido los siguientes factores:

- *El área de conocimiento asignado a los puestos de trabajo según el informe del puesto de trabajo y la monografía accesible a través de EIZU.*
- *La descripción de la misión y de las funciones de los puestos de trabajo según su monografía accesible a través de EIZU.*
- *La clasificación de todos y cada uno de los méritos alegados en dominios y campos de conocimiento.”*

Hala, araudi esparruak ezarri zuen titulu ofizialak aztertzerakoan lanpostua betetzeko erakusten duten erabilgarritasunari erreparatu behar zaiola. Deialdiaren oinarriek agindu hori zehaztu zuten, aurreikusiz merezimenduak kontuan hartuko direla horren edukiaren eta lanpostuen eginkizunen arteko lotura dagoenean; ziurtatutako merezimenduaren ezagutza eta esparruen eta lortu nahi den lanpostuaren arteko baliokidetasuna frogatuz agerraraziko da lotura dagoela.

Bestalde, lanpostuari dagokionez, balorazio irizpideen dokumentuak ezagutza esparrua aipatzeaz gain, misioaren deskribapena eta monografiak emandako funtzioak ere aipatzen ditu. Hau da, lanpostuaren eta merezimenduaren arteko egokitzapen judizioa egite aldera, lan dokumentu horrek ezarri zuen konparazio puntua lanpostu bakoitzaren eduki propio eta zehatza dela.

Illo horretan, lanpostua zuzen garatzeko beharrezko betekizunen eta aurkeztutako titulazioa izateak frogatzen duen ezagutza eta gaitasun profesionalaren eduki materialaren arteko baliokidetasunari erreparatzea zentzuzkoa dirudi; izan ere, eduki horrek egiaztatuko du, hain zuzen ere, ikasketa jakin batzuek lanpostu bat zuzen garatze aldera eskain dezaketen erabilgarritasuna.

Horregatik, lanpostu horrek monografietan jasotzen dena bete behar badu ere, horrez gain, kexa honetan aztertutako titulu akademikoari dagokionez, kontuan hartu beharko da aztertutako ikasketa planaren curriculum-eduki zehatza.

Kexa aurkeztu duen pertsonaren kasuan, erreklamazioei eman zaizkien erantzunetatik ondorioztatzen denez, ez zen kontuan hartu aurkeztutako titulazioaren eduki materiala (*"Bigarren graduako Lanbide Heziketako titulua, administrazio eta merkataritza arloa, kudeaketa informatikako teknikari espezialista"*) egokia zenik lortu nahi zituen lanpostuen ezagutza eta eskakizun funtzionalerako (Administrazio kidegoko postuak).

Titulazio hori baloraziotik baztertu zen araudiak gaur egungo *"Plataforma anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikari"* tituluaren ondorio profesional eta akademiko berberak eman baitzizkion; aipatutako titulu hori *"Informatika eta Komunikazioak"* familiakoa da.

Hala ere, egia da bi titulu horien curriculum edukiei erreparatuz gero, horien arteko desberdintasunak nabarmenak direla; izan ere, azken hori bereziki arlo informatikora bideratuta dago, titulu horren ikasketa plana osatzen duten prestakuntza modulu eta gaien zerrendatik ondoriozta daitekeenez²; aurkeztutako espediente akademikoetan, ostera, administrazio alderdiei lotutako gaiak ere badaudela ikus daiteke, esaterako kontabilitate edo mekanografiarekin lotutakoak.

Arrazoi hori dela medio, erakunde honen iritziz, titulu akademiko baten eta lanpostu baten arteko egokitzapen judizioa soilik titulu hori beste batekin parekatzeko ohar formalean oinarritzeak, non lanpostuaren betekizunetara ez

² 450/2010 Errege Dekretua, apirilaren 16koa, plataforma anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikariaren titulua ezarri eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena (maiatzaren 20ko BOE), eta 207/2011 Dekretua, urriaren 7koa, Plataforma anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokien curriculumaz ezartzen duena (urriaren 26ko EHAA).



den egokitzen familia profesional desberdin batekoa delako, horrek ez du bermatzen judizio hori egokia denik.

Aitzitik, jarduketa hori azterketa sakon batean oinarritzea espero zitekeen, kontuan hartuko lukeena tituluaren eduki zehatza eta lanpostuaren edukira neurri handi edo txikiagoan doitzea, araudi aplikagarrian xedatutakoa jarraituz.

Zehazki nabarmendu behar da alde argia dagoela baliokidetzat jotako tituluaren artean: familia profesional desberdinetakoak dira: "Administrazio eta Merkataritza" arlokoa, batetik, eta "Informatikoa", bestetik.

Hain zuzen ere, Funtzio Publikoko zuzendariaren txostenak berak ere aipatu zuen ez zekiela Estatuko Administrazioak zein irizpideren arabera aitortu zuen "ikasketa plan horren desberdinak" dituzten bi titulu parekideak direla.

Erakunde honen aburuz, desberdintasun hori aitortzeak nahitaez dakar kexa aurkeztu duten pertsonen aurkeztutako tituluaren edukia aztertzeko ahalegin berezia, baita horrek lortu nahi dituzten lanpostuen eduki propioarekin duen lotura ere.

3. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailaren erantzunak hartutako erabakia hartzeko oinarri gisa aipatu du estatu mailako araudiak berak ezarri duela lanpostuak betetzeko horrelako prozesuetan aurkeztutako titulua ondorengo titulu zehatz batekin parekatzea, eta inguruabar horri esker titulua daukaten pertsonen sarbide prozesuetan parte hartzeko aukera daukate, titulurik berriena izatea betekizun gisa daukaten prozesuetan, alegia.

Horri dagokionez, ez da ahaztu behar hezkuntza sistemak titulu akademiko zaharragoen ordeztu behar diren ari den gizartearen betekizunetatik gertuago dauden beste titulu berri batzuk ezartzen dituzenez, horrelako baliokidetasunak ezarri behar direla, baita indarrean egoteari uzten dioten tituluei aitortu behar zaizkien ondorio akademiko eta profesionalak zehaztea ere, beste batzuek ordeztu dituztelako.

Hala, denborak aurrera egin ahala eta titulazioen katalogo berriak sortzen direnez, logikoa da betekizun zehatzak finkatzea kidego zehaztutara sartzeko edo lanpostu jakin batzuk garatzeko, eta hori egitean existitzen diren titulu berriei erreferentzia egitea; hala, ahalbidetu behar da, titulu zaharrek ondorioak izaten jarraitzea eta, horretarako, tituluaren arteko baliokidetasunen figura erabiltzen da; hortaz, Administrazioaren txostenean dakarren moduan, baliokidetasunen figura ezin da ezezaguna izan.

Hala ere, kexa espediente hau izapidetu den bitartean, inolaz ere ez da zalantzan jarri tituluaren baliokidetasuna ezta titulu bat edo beste bat izateak zenbait kidegora sarbidea izateko gaitasuna izatea.





Aitzitik, lanpostu bat garatze aldera titulu jakin bat izateak dakarren merezimendua aztertzea da kontua. Eta merezimendu hori, deialdiaren oinarrietan eta araudian ezarritakoarekin bat etorriz, ez da modu abstraktuan aurreikusi behar; aitzitik, titulua izateak ikasketa horiek egin izanari ematen dion abantaila argiari buruzkoa izan behar da, lortu nahi duen lanpostua eraginkortasunez garatzeko, eta hori soilik ondoriozta daiteke tituluaren edukiak eta lanpostuaren eduki propioen arteko lotura aztertuz.

Hain zuzen ere, tituluaren arteko baliokidetasunaren inguruko aipamenik ez dago ez araudian, ez lehiaketaren deialdiaren oinarrietan, eta lanbide heziketako tituluak kontuan hartu ahal izateko ez da familia profesional jakin batzuen kasura mugatu; aitzitik, tituluaren erabilgarritasunari egiten diote erreferentzia, deitutako lanpostua garatzeari dagokionez, eta egin beharreko lan eta edukien arteko loturari.

Logika hori bera sortzen da araudian prestakuntza eta bikaintasun ikastaroen kasuan. Oro har, ikastaro horiek ez dira betekizun gisa eskatzen kidego batera sarbidea izateko, baina, hala ere, kontuan hartzen dira lanpostuak betetzeko prozesu guztietan.

Hala, ikastaro horien balorazioa egiterakoan deitutako lanpostuen berezko funtzioei edo lan horiek garatzeko behar diren gaitasunei buruzko gaiak aztertzen dira (11.3.c artikulua), Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudikoa, eta deialdiko 7.3 oinarria]; hala, kasu honetan ere eskuratutako prestakuntzaren eta lortu nahi den lanpostuaren berezko lan eta funtzioak garatzearen ondoriozko beharrezkoen arteko lotura aztertu behar da.

4. Funtzio Publikoko sailburuordearen 2002ko otsailaren 26ko ebazpenak ezarri zituen aplikazio-baremoak honako prozedura honetan: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta bertako erakunde autonomoetako lanpostuak, zerbitzuen betekizunean edo bitarteko funtzionario gisa, modu iragankorrean betetzeko.

B/C, C, C/D eta D taldeetan sailkatutako lanpostuetan aplikagarria den eranskineko 3. atalak ezarri zuen kontuan hartuko dela *“deitutako lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen berariazko prestakuntza”* eta, zehazki, erreferentzia egiten dio

“a) Lanpostuaren eginkizunekin zerikusi zuzena duten unibertsitate-titulazioak eta Kidegoan sartzeko eskatzen ez diren teknikari eta teknikari espezialista titulu ofizialengatik puntuazioa emango da baremo honen arabera.

b) Lanpostuarekin zerikusi zuzena duten hobekuntza-ikastaroak azken hamar urtetan egindakoak badira”

Arartekoaren aburuz, atal honetan koka daiteke argudio hau: alegatutako tituluaren eta eskuratu nahi den lanpostuaren arteko egokitzapena tituluaren





ikasketa-planaren eduki materiala aintzat hartuz egin behar dela; izan ere, ikasketa horiek egitean eskuratutako prestakuntza zehatz eta berariazkoari esker, lanpostuari dagozkion funtzioak eta zereginak hobeto edo okerrago egin ahalko dira.

Puntu honetan, eta espedientea izapidetzean azaldu zen moduan, arartekoak nabarmendu nahi du, araudi aplikagarrian aldaketarik egin ez den arren, administrazioaren jarduna aldatu egin dela; izan ere, aurreko prozesuetan kexa aurkeztu duten pertsonen aurkeztutako titulua kontuan hartzen zen lanpostuak aldi baterako betetzeko merezimendu modura; une batetik aurrera, berriz, titulua ez da horrela kontuan hartu, eta pertsona kaltetuek ez dute aldaketa horren zergatien berri izan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Kontuan hartzea Administrazio eta merkataritza arloan, kudeaketa informatikako teknikari espezialista titulu egindako ikasketa planaren edukiaren eta titularrak lortu nahi duen lanpostuaren edukiaren artean dagoen lotura, merezimendu gisa har dadin bai lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorrean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren 2018ko apirilaren 23ko Aginduaren bitartez deitutakoa, bai lanpostuak zerbitzu eginkizunez aldi baterako betetzeko deialdietan, Funtzio Publikoko sailburuordearen 2002ko otsailaren 26ko Ebazpenaren babespean.

